



DEBAko UDALA

EDIKTUA

Ondasun higiezin gaineko zergari buruz eta ondasun higiezin hiritarren balio katastralen berrikuspenari buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2016ko irailaren 20an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuen.

«Lehena.- Onartzea Gipuzkoako lurralde historikoko udalerrietarako ondasun higiezin hiritarretako lurzuaren eta eraikinen balio ponentzien berrikuspena.

Bigarrena.- 15 eguneko epean ponentziak jendurrean jartzea, interesatuek hautazko berraztertze errekurtsioa jarri ahal izan dezaten Foru Aldundian edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkez dezaten Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen duen eran.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal bakoitzaren ediktuen bidez iragartzea ponentziak jendurrean jarri direla aurreko apartatuan aipatu bezala.»

Ponentzia horiek dagokien udaletan eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Udal Zergen Zerbitzuaren bulegoetan (Okendo kalea, 20. Donostia) jendurrean jarri direla jakinarazteko, 2016ko irailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu da. Hortaz, erabakiaren bigarren apartatuan aipatzen den 15 eguneko epea 2016ko irailaren 23tik urriaren 13ra arte, biak barne, izango da. Epe horretan interesatuek ebazpen horren aurka hautazko berraztertze errekurtsioa aurkeztu dezakete Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren aurrean, edo bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu dezakete Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, beti ere Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen duen eran.

Halaxe hau denon aurrean argitaratzen da behar diren ondorioetarako.



Deban, 2016ko irailaren 22a. - Alkate-lehendakaria